

V. TXARA LASTERKETAK 2026

ETA TXARA MARTXAK

1. Data eta tokia

- V. Txara Trail (18km) lasterketa urriaren 24ean izango da, goizeko 9:30ean, Markina-Xemeinen (Bizkaia). Helmuga ere leku berean izango da.
- V. Txaramotx (10,5km) lasterketa urriaren 24ean izango da, goizeko 10:00etan, Markina-Xemeinen (Bizkaia). Helmuga ere leku berean izango da.
- V. Txaramartxa urriaren 24ean izango da, goizeko 08:00etan, Markina-Xemeinen (Bizkaia). Helmuga ere leku berean izango da.

2. Ibilbideak

- Txara trail* mendi lasterketak 18 kilometro izango ditu, eta 1.150 metroko desnibel positiboa. Eguraldi euritsua egiten badu, *grip* edo tako handidun oinetakoak eramatea gomendatzen da.
- Txaramotx* ek 10,5 kilometro izango ditu, eta 600 metroko desnibel positiboa.
- Txaramartxa* laburra edo luzea norbere aukeran. Bata Txaramotxen ibilbidea da eta bestea Txara trail en ibilbidea.

3. Parte-hartzaileak

- Lasterketetan:** 300 korrikalariko muga ezarriko da: hasiera batean, 200 korrikalari Txaratrail mendi lasterketa eta 100 Txaramotx lasterketarako. Bietako bat betetzen ez baldin bada, beste distantzian muga handituko genuke, 300 parte-hartzailetara iritsi arte.*
- Martxetan:** 150 oinezko muga ezarriko da. Egunean beertan aukeratu daiteke ibilbide luzea zein laburra egin*

*18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, eta 15 urtetik gorakoek ere bai, gurasoen edo legezko tutoreen baimenarekin.

4. Izen-emateak

- Kronoak plataforman (<https://www.kronoak.com>) eman ahal izango da izena:

Txara trail eta Txaramotx: izen emateko epea, epea hau irekitzen denetik urriaren 23 illuntzeko 20:00ak artekoa izango da. Ordainketa epe muga bi egongo dira.

Txaramartxak: egunean bertan ere goizeko 07:45 ra arte apuntatu ahal izango da. Egunean bertan ere izen emateak <https://www.kronoak.com> en egin beharko dira. Antolakuntzak ez du esku dirurik jasoko ez eta izen-ematerik eskuz egingo.

- 300 korrikalariko eta 150 oinezkoren muga gaindituz gero, ondorengoak itxaron-zerrendan sartuko dira. Ondoren, izena emandakoren batek baja ematen badu, itxaron-zerrendakoei deituko zaie, izen-emate ordenaren arabera.
- Izen-ematea egiteko,
 - Txaratrail 22€ irailaren 27 ra arte eta 27€ ondoren. **
 - Txaramotx 15€ irailaren 27 ra arte eta 18€ ondoren. **
 - Txaramartxa labur zein luzea: 15€ irailaren 27 ra arte eta 18 ondoren. **

****Irailaren 27 az geroztik izena ematen dutenek ez dute lasterketako kamisetarik izango.**
- Irailaren 27etik aurrera ez da dirurik itzuliko. Epe horretatik aurrera, dirua itzultzeko salbuespena egingo da, baldin eta ziurtagiria aurkezten bada (laneko bajaren txostena, medikuaren txostena,...).
- Irudiak ateratzeko baimena:** Izen ematearekin niri argazkiak ateratzeko baimena ematen dut. "Irudiak" aipatzerakoan, bideo, argazki formatu digital edo beste formatu baten erabili, erreproduzitu edo erregistratzeko baimena ematen dut, sare sozial zein probari lotutako web orrietan.

V. TXARA LASTERKETAK 2026

ETA TXARA MARTXAK

5. Derrigorrezko materiala

- Edalontzi biguna edo *soft flask*-a
- Eguraldi txarra balego, "txanodun sira" inpermeablea edo "sira eta bisera" eraman beharko dira.

6. Dortsalen banaketa eta kontsigna-zerbitzua

- Markina-Xemeingo plaza barripean (udaletxearen ondoan) banatuko dira dortsalak, 8:00etatik 9:10era arte eta Txaramotx ekoak 9:40ra arte.
- Aterpean bertan, motxilak kontsignan uzteko aukera egongo da

7. Irteera

- Lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago irteera-puntura hurbildu beharko dute korrikalariak, eta boluntarioek korrikalari bakoitzak derrigorrezko materiala baduela ziurtatuko dute.

8. Denbora-muga

- Txaratraileko lehen korrikalariak 2 ordu azpitik bukatuko dutela kontuan izanik, denbora-muga 4 ordukoa izango da; hau da, 13:30ean ezarriko da muga. Korrikalariak denbora-muga hori gainditzen baldin badute, dortsala kenduta jarrai dezakete ibilbidea, eta betiere kontuan hartuz ordu horretatik aurrera ez direla kontrolatuko ez ibilgailuak eta ez bidegurutzeak.
- Txara martxetan parte hartzen dutenen denbora-muga 6 ordukoa izango da, hau da, 14:00 etatik aurrera ez da helmugako anoagunerik izango.**

9. Anoa-guneak

- Zapolako likidoen anoa gunea (4 km). **Baita Txaramotx-ekoen anoagunea ere.**
- Herribasoko pagadian (5,9 km), ura/isotonikoa eta fruta. **Baita Txaramotx-ekoen anoagunea ere.**
- Santa Eufemiko bolatokian, ura (9 km).
- Herribasoko pagadian (12,8 km), ura/isotonikoa eta fruta).
- Helmugan.

Anoa-gunetan ura hartzeko, korrikalari bakoitzak bere edalontzi bigun edo *soft flask*a eraman beharko du.

Anoa-gunetan edo inguruetan zabor-poltsak jarriko dira, edozein zabor (gelen plastikoak, edalontziak..) bertara botatzeko. Zaborra poltsa horietatik kanpo botatzen baldin bada, korrikalaria lasterketatik kanpo utz dezake antolakuntzak.

10. Helmugaratzea

- Dutxak Markina-Xemeingo Lea-Artibai ikastetxean. Helmugatik 400 metrotara.

11. Sari-banaketa

- 12:45etan banatuko dira sariak (edo, azken korrikalaria arinago heltzen bada, azken korrikalaria heldu ondoren), Markina-Xemeingo zelaian jarriko den gunean.
- Txara trail mendi lasterketan honako sari hauek emango dira:
 1. emakume zein gizonezkoarentzat txapel bordatua, oroigarria eta 100 euro
 2. emakume zein gizonezkoarentzat oroigarria eta 50 euro
 3. emakume zein gizonezkoarentzat oroigarria eta 30 euro
- Txaramotx lasterketan honako sari hauek emango dira:
 1. emakume zein gizonezkoarentzat txapel bordatua eta oroigarria
 2. emakume zein gizonezkoarentzat oroigarria
 3. emakume zein gizonezkoarentzat oroigarria